

# Euskara elkarteetan

## 1. Jardunaldien inguruan

Miren Arregi / Jabier Ozaeta

**J**ardunaldiak, 1993.eko urriaren 30-31n izan ziren, ondoren inkesta prestatu eta 150 partehartzaileei bidali zitzairen, jaso diren erantzunak 33 izan direlarik.

Inkestak azterturik, hona hemen atera ditugun ondorioak:

Garbi dago jardunaldien premia nabaria zela, %87,87k horrela erantzun baitu.

Bestalde, partehartzaileen helburu nagusia "elkarterei buruzko gogoeta egitea" da, "elkarteria berria sortzeko" premia batek baino ez du aipatu. Helburu zehazterara joz, ikusenez %69,7k norabidea ebaluatzea zuela helburu; baina helburu horretaz gain %39,4k bide berriak jorratzea, eta %30,3k ideia berriak jasotzea ere bazuen helburu.

Euskalgintzan dabilen jendeak elkarren berri izateko jardunaldiak egokitzen joan direla %78,7k.

Ekintza egitasmoak eta helburuak nola antolatu sailean esanenez %89 dela nahiko ados edo erabat ados dagoena.

Euskara elkarteek erabilera gizarteratzeko eta horretarako erabiltzen den metodologiaren aldetiko adostasuna ia erabatekoa da.

Partehartzaileen ustez Euskal Herri mailako elkarlanak euskara elkarteetan eguneroko jardunean, eragin handia izango luke, hala uste

du %60k; eta gainera horretarako adostasunik badagoela uste du %59k.

Elkarteen lehentasunak garbi azaldu zirela ia %85ek uste duen bitartean, etorkizunerako pautak garbi azaldu zirela uste dutenak %69 dira.

Bestalde ordea, jardunaldietan jorrotutako gaien eta ponenteen egokitasuna eta hauek sortutako espektatibak %90ean bete ziren. Garbi azaldu da halaber jardunaldiak esposizioak egiteko izan zirela; hala ere, %65,5ek uste du mintegi planteamendua egokiago zitekeela.

Galdetzen denean ea zein gai izan daitekeen elkarteetan ukitu gabe dagoena eta lantzea interesgarritzat jotzen dena, ematen diren erantzunak oso diferenteak dira, eta askotan elkarrekin zerikusirik ez dutenak; dena den, bi dira bereziki faltan bota direnak, "Jubilatuak" eta "Euskaldun berri edo euskara ikasleak" hain zuzen ere. Ondoren, berriz, aipatu diren beste gai batzuk ere zerrendatuko ditugu, "Sektore desberdineko harremanak", "Jendea motibatuzeko teknikak", "Finantza-bideak", "Sorrera-metodologia", "Formazioa", "Erdeldungoarengana nola iritsi"...

Gaien egokitasunaz galdetzen denean %90 ados badago ere, badira zenbait gai jorrotu beharrean ikusten direnak; besteak beste, "Euskara elkarteetan arteko koordinazioa, harremana",



*“Partehartzaileek bete dituzte jardunaldietan jarritako espektatibak eta azaldutako gai eta ponenteekiko adostasun zabala adierazi dute”.*

## *“Hurrengoan, sailen bat edo beste mintegi modura planteatzeko aukera aztertu beharko litzateke”*

*“Euskaldun berrien elkarteratzea”, “Elkarte eta Udalen arteko harremanak”, “Etorkizunera-ko irizpideak eta jarrerak”, “Formazioa” (Txepex), “Gizartearekiko lotura”.*

Jardunaldien planteamenduaz galdetzean %65 zegoen mintegi planteamenduaren alde eta, zergatiak edo zertarakoak honako hauek izan

ziren: %21ek mintegi planteamendua egoki ikusiko luke, eztabaida eta zalantzak argitzeko, eta elkarren esperientziak trukatzeko aukera egokia emango lukeelako. Beste arrazoen artean, mintegi planteamendua defendatzeko hauek ere erabili dira: *“Koordinazio lanean sakontzeko”, “Parte hartzeko aukera handiagoa ematen duelako”.*

Mintegi planteamenduarekin desadostasuna adierazteko arrazoi hauek erabiltzen dira, *“Homogeneotasun eza”, “Teoria eta oinarriak beharrezkoak direlako eztabaidan sartzeko”, “Jardunaldien helburua informazioa eta esperientzien berri ematea zen, 2 egunek ez zutelako horretarako betarik ematen”, “Edukien mardul-tasuna ikusiz egokia izan zelako ponentzia bidezko planteamendua”.*

Guzti honetatik kanpo bada EKBren iritzia faltan bota duenik ere, gainera Eusko Jaurlaritzatik 3 ponentzia eta Adorez eta Atseginez taldeko beste 6 azaldu zirela kontuan izanda.

Laburtuz zera esango nuke, orohar partehartzaileek bete zituztela jardunaldietan jarritako espektatibak, baita azaldutako gai eta ponenteekiko adostasun zabala adierazi dela.

Bestalde, agian, hurrengoan, sailen bat edo beste mintegi modura planteatzeko aukera aztertu beharko litzateke.

Jardunaldiak harrera oso ona izan dutela esanez bukatuko dugu.